

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nazioarteko lankidetzan I+G+b proiektuen programan parte hartzeko epea ireki da

Nafarroako Gobernuak hautatutako ekimenak finantzatzeko 500.000 euro jarriko ditu 2020 eta 2021 urteetan

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 17

Fabrikazioko teknologia aurreratuen eremuan, nazioarteko lankidetzako I+G+b arloko jarduerak egitea aurreikusten duten Nafarroako enpresek eta erakundeek dagoeneko eska ditzakete [Europako Manunet programako](#) laguntzak; bertan, Foru Gobernuak parte hartzen du, eta 500.000 euro jartzen ditu proiektuetara elkaturiko Nafarroako erakundeentzat.

Ikerketa, garapen eta berrikuntza arloko jarduerak 2020-2021 denboraldian garatu beharko dira, eta Manuneten lurralde-eremuko bi herrialde ezberdinetako bi erakunderen lankidetzak eskatzen dute gutxienez. Horrez gain, proiektuan gutxienez bi etek esku hartu behar dute.

Nafarroako Gobernuak finantzaketa eskainiko die onartutako proiekturen batean esku hartzen duten bazkide nafarrei, laguntzen deialdi espezifikoaren bitartez, Garapen Ekonomikoaren Departamentuak indarrean duen araudiaren arabera.

Eskaerak aurkezteko lehen fasea martxoaren 21ean amaitzen da. Horretarako, proiektuaren aurre-proposamena aurkeztu behar da. Onartua izanez gero, bigarren epe bat irekiko da, uztailaren 11ra bitartekoa, proposamen xehatuak aurkeztearren.

Parte hartzeko baldintzak, eskaera-inprimakiak eta bestelako informazio baliagarria Manunet proiektuaren web orrialdean aurkitzen dira; eskaerak ere bertan aurkeztu behar dira.